

KANALAK

Gure enpresa hasiera batean denda fisikorik izango ez duen online denda bat denez, ezinbestekoa da kanalen beharra. Horiek beharrezkoak dira bai ekoizteko beharrezkoa den materiala inportatzeko, bai produktua dagozkion helmugetara esportatzeko. Fase hau enpresa ofizial gisa burutzeko, bidalketa-enpres nazionalak eta penintsular irletara eta beste herrialde batzuetara, Europako zein beste kontinenteetakoak, bidaltzen dituztenekin harremanetan jarriko gara. Bezeroek euren produktua banatzaileen dendetan, euren etxeetan edo bilketa puntu batean jasotzeko aukera izango dute. Garraio-gastuei dagokienez, bezeroak ez ditu bidalketa-gastuak ordaindu beharko, 100 eurotik gorako produktu guztiek bidalketa guztiz doan izango duten poliza bat erabiliko baitugu.

Enpresa gisa dagokigun neurrian, denda fisikorik ez izan arren, produktuak ekoizteko eta ontziratzekeo biltegiak izango ditugu, beraz, salgaia banatzaileei leku beretik entregatuko zaie. Banatzaile hauek enpresa pribatuetako langileak izango dira, beraz, produktua egoera onean iristen dela ziurtatzeaz arduratuko lirateke. Hala ere, gure enpresak politika bat ezarriko du eta bertan zehazten da bezeroak, bere produktua non dagoen jakiteko aukera izateaz gain, edozein motatako erreklamazioak egin ditzaketela produktua egoera onean iristen ez bada edota eskaera aurreikusitako entrega-eparean barruan. Era berean, gure webgunean atal bat izango dute gure enpresa idatziz bezala puntuazio gisa baloratzeko.

Bidalketa lurreko garraio bidez egingo dira. Hasiera batean, produktua banatzaileei entregatu eta astebete inguru emango zaie, nahiz eta entrega-epea aldatuko den distantziaren eta dagozkion herrialdeetako garraio-egoeraren arabera. Hala ere, azpimarratzekoa da bezeroari bere produktuaren egoeraren berri emango zaiola eta informazio hori behar adina aldiz eskuratu ahal izango duela.

Azkenik, bezeroa produktuarekin konforme ez badago, gure enpresara deitzeko aukera izango du, gure langileak salmentan zehaztutako bilketa puntura joateaz arduratuko garelako produktua jasotzera. Produktua itzuli nahi ezker, bezeroak produktua heldu zaion baldintza berdinetan entregatu beharko du. Gure webgunean jasotako itzultze-politika jarraituz, bezeroak produktu berri baten ordez bere dirua itzultzea nahiago duela zehazten badu, produktua entregatu bezain laster, enpresa arduratuko da aukeratutako ordainketa moduaren bidez dirua itzultzeaz.